

*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

6

**Gora Gutenberg!**  
**Gora Marconi!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

# SEIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA “GORA GUTENBERG! GORA MARCONI!”

## Sekuentzia tematikoa: Gora Gutenberg! Gora Marconi!

Komunikazioa eta komunikabideak:

- Komunikatzeko era desberdinak: ahozkoa, idatzizkoa, gorputz adierazpenezkoa.
- Komunikazioa historian zehar.
- Komunikabide desberdinak: telefonoa, irratia...
- Artearen bidez komunikatzen.
- Hizkuntza aniztasuna, gizakion altxorra. Kondaira: Babelgo Dorrea.
- Prentsa idatzia. Komunikazio idatzia. Albisteak.
- Telebista. Telebistaren erabilera.

Hau guztia lantzen ari garen bitartean, gure proiektua izango den irratsaioan txertatuko ditugun atalak paraleloki landuko ditugu. Hona landu eta txertatu daitezkeen hainbat elementu:

- Irratsaioaren sintonia, musika.
- Agurra.
- Programarako
  - Ipuina
  - Abestia
  - Antzinako kontakizunak
  - Elkarrizketa
  - Albisteak
  - Inkesta
  - Iragarkiak
  - Igarkizunak
  - Liburuei buruzko aipamenak
  - Txisteak
  - Bertsoa

Proiektua: Irratsaio baten antolaketa eta emisioa edota grabazioa.

Ipuin literarioa: Lantzen den gaian, eta sekuentzian zehar (irratsaioan) liburuen aipamena bideratzen denez, ez da ipuin zehatz baten lanketa iradokitzen.

## ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Hezkidetzaz	Sexuaren araberako rolak. Gizartearen jarrerak.
Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza	
Osasun Hezkuntza	Kutsadura akustikoa. Telebista, ordenadorea eta begien zainketa.
Kontsumorako hezkuntza	Telebista. Iragarkiak. Mezuak era kritikoan interpretatzea.
Gizarte-komunikabide hezkuntza	Komunikabideen erabilera egokia. Ikuspegi kritikoa.

## EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Euskal tradiziozko ipuina Ipuina: Gora Gutenberg! Gora Marconi! Olerkiak Igarkizunak
Ingurumena	
Musika eta gorputz motrizitatea	Euskaraz bizi, jolas abestia Tradiziozko abestia: <i>Telefonoa</i> . Itoiz Bestelako abestiak
Arte Plastikoak	Identitate kultureko sinboloak

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuaren osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango dituzte Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektuagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango dituzte baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 6. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	153	
1		Azalari behatzea	3	153	
2		Komikia	4	154	
3		Txoko zuria eta proiektua	5	155	
6		Komunikazioa. Zer jakin nahi duzu?	6	156	
7		Musika ikasten ari gara	7	157	
7		<i>Euskaraz lehenik</i>	7	157	
7		Imanol Urbietari elkarrizketa	7	157	
8		<i>Kolpatzen ala astintzen</i>	7	157	Musikako lan-koademoa, 38. or.
9		<i>Ezkerra ibiltzen da</i>	7	157	Musikako lan-koademoa, 39. or.
10		<i>Astoketan</i>	7	157	Musikako lan-koademoa, 40. or.
11		<i>Txoko-txoko-txo</i>	7	157	Musikako lan-koademoa, 41. or.
15		<i>Altzaporu, fandango!</i>	7	157	
16		<i>Trankatran</i>	7	157	

18		Aho-hizkuntza, hizkuntza idatzia, gorputz-hizkuntza	8-9	158-159	
20		Ikerketa plastikoa: irudien komunikazio gaitasuna	11	161	
22		Komunikazioa historian zehar	10-11	160-161	
22		La comunicación	11	161	
27		Telefonoa	11	161	
32		Artelanak: Picasso eta Chagall	12	162	
32	 IRAKASLEA	Pablo Picassoren biografia	12	162	
32		Pablo Picasso	12	162	
32		Picassoren eskulturak	12	162	
32		Picassoren margolanak 1	12	162	
32		Picassoren margolanak 2	12	162	
32	 IRAKASLEA	Marc Chagallen biografia 1	12	162	
32	 IRAKASLEA	Marc Chagallen biografia 2	12	162	
32		Marc Chagall	12	162	
32		Chagallen margolanak 1	12	162	
32		Chagallen margolanak 2	12	162	
32		Chagallen margolanak 3	12	162	
32		Chagallen beirateak	12	162	

37		Hizkuntza aniztasuna, gizakion altorra	14	164	
38		<i>Behin betiko</i>	14	164	
40		Languages & communication	15	165	
42		Barrehiztegia	16	166	
44		Antzinako kontakizunak	17	167	
48		Hainbat komunikabide. Zein erabili?	18-19	168-169	
51		<i>Gutunei koblak</i>	19	169	Irakurgaiak, 81. or.
52		Zer da prentsa idatzia?	20	170	
53		<i>Egunkari honekin</i>	20	170	
54		Nola egiten da egunkaria?	21	171	
55		<i>Zirt-zart, zirt-zart notizia dakart</i>	21	171	
59		Olerkia: Telebista	22	172	
60		Telebista. Inkesta	23	173	
61		<i>Telebista</i>	23	173	
64		Gurasoentzako eskutitza	24	174	
65		Irratsaio baten antolaketa	24	174	
66		Irratia	24	174	
67		Puntuazio zeinuak	25	175	

69		Komikia	26-27	176-177	
71		Ipuina aitzakia	28	178	
74		Idazleak	29	179	
75		Leroy Andersonen biografia	29	179	
75		Entzualdia: Anderson	29	179	
75		Anderson: idazmakina	29	179	
75		Leroy Andersonen biografia 1	29	179	
75		Leroy Andersonen biografia 2	29	179	
78		Proiektua gauzaten: Irratsaioaren prestaketa	30-31	180-181	
79		Sintesia	32	182	

## JARDUEREN ANALISIA

### 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Azalaren taldeko behaketa bideratuko dugu. Behaketa hauek, talde handian edota talde txikietan (2-3 lagun) txandakatuz egin ditzakegu. Azalaren behaketan aurreikuspen-estrategiak landuko ditugu.

- *Zer ikusten dugu?*
- *Zer jartzen du?*
- *Ba al dakizu zeintzuk ziren bi pertsonaia hauek? Marconi nongoa izan zitekeen? Eta Gutenberg?*
- *Azalean dagoena ikusiaz, izendatu elementuak, zer nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?*
- *Atsegin al duzue gaia? Zergatik?*
- ...

### 2. Komikia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. or.*

Oraingo honetan, orrialde bakarra aurkituko dugu. Hasteko, hurrei komikia banaka irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu. Ondoren, talde handian egingo dugu irakurketa. Hasi aurretik haurrak girotu egingo ditugu.

- *Zer gertatzen da Maddalenen etxean?*
- *Zergatik uste duzue Maddalenen etxeak oilategia dirudiela?*
- *Zer ikusten ari da Maddalen? Eta aita zer entzuten ari da?*
- *Zergatik uste duzue haserretu dela Maddalenen ama?*
- *Imajinatu zuri berdina gertatzen zaizula, berdin haserretuko al zinateke?*
- ...

Ondoren, binetaz bineta guztion artean irakurriko dugu. Bigarren irakurketa batean xehetasunetara joko dugu. Arreta jarraraziko diegu azaltzen diren komiki-hizkuntzaren baliabideetan; nola adierazten duen marrazkilariak telebista oso altu dagoela, irratiazen soinua, amaren haserrea...

Kutsadura akustikoaren gaiari ere heltzeko egoera aproposa dugu hau.

- *Ba al dakizue zeri deitzen zaion kutsadura akustikoa?*
- *Zer eragin dauka gure osasunean? Estresa eta entzumen arazoak nagusiki.*
- *Zaintzen al dugu alderdi hau?*
- *Gelako "bolumena" egokia izaten al da?*
- *Zer egin dezakegu bolumen egokia edukitzeko?*

Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu.



### **3. Proiektua eta Txoko zuria**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 5. or.*

Unitate honetako proiektua irratsaio bat antolatzea denez, hasteko, irratia ea entzuten duten, noiz entzuten duten eta zer nolako programak entzuten dituzten galdetuko diegu, elkarrizketa bat bultzatuz. Ahal dela irratsaio bat entzun gelan.

Horren ostean, antolatu beharko dugun irratsaioaren inguruko gogoeta egiten hasiko gara, izan ere, irratsaioak izango duen sintonia aukeratu beharko dugu, izena erabaki, irratsaioan izango diren sailak aukeratu, sail bakoitzarentzat sintonia berezi bat aukeratu behar dugun ala ez ikusi...

Azkenean, hemen eskaintzen dizuegun antzeko oinarrizko eskema bat osatuko dugu denon artean. Unitatean zehar egin dituzuen lanak aukeratu beharko dituzue eta ardurak banatu grabazioan denak parte har dezaten. Irratsaioa grabatu ondoren, ahal duzuela emititu!

*1. Sintonia + Programaren izena + Sintonia*

*2. Agurra + Programan izango diren sailen aurkezpena + Sintonia*

*3. Programa, aukeratutako sailak erabakitako ordenaren arabera jarriz*

*- albisteak*

*- olerkiak*

*- iragarkiak*

*- txisteak*

*- ipuinak*

*- musika*

*- iritzia*

*- elkarrizketa*

*- ...*

*4. Sintonia + Agurra + Sintonia*

Bestalde, proiektua martxan jartzearekin batera, gaiaren inguruko txoko zuria antolatzen hasiko gara.

Honetaz gain, unitateko hainbat orritan mikrofono bat agertuko zaigu. Urdintxok esaten diguna irakurriko dugu eta mikrofonoaren ikurrak zer adierazten duen guztion artean argituko dugu.

### **4. Txoko zurirako materiala, gurasoentzako eskutitza**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Txoko zuria komunikabide ezberdinen inguruko materialekin osatu ahal izateko, ikastolako liburutegitik gaiarekin erlazioa duten liburuak hartzeaz gain, gurasoei eskutitza bidaliko diegu.

Oraingoan, eskutitza geuk eman beharrean, haurrak talde txikitan banatuko ditugu eta eskutitza idazteko eskatuko diegu. Talde txikietan sortzen dituzten eskutitzak talde handian zuzendu ondoren, haur bakoitzak bere taldeak ekoiztutakoa garbira pasa eta etxera eramango du.

Talde handian zuzenketa egitean, gutunaren egituraren atal ezberdinak nola landu dituzten kontuan izango dugu: diosala, agurra, mezua garbi dagoen edo ez... Eta mezua helarazteko talde bakoitzak zer eta nola idatzi duen alderatuko dugu. Hartzailak ondo ulertu behar duela eta, letra txukun-txukuna egin eta ortografia zaintzearen garrantzia azpimarratuko dugu

## 5. Berria

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 74.or.*

Berria banaka irakurri ondoren, haur guztien artean ulertzen ez ditugun hitzak argituz eta testuaren esanahia konpartituz, bigarren irakurketa egingo dugu talde handian.

Horretarako, banakako irakurketan ulertzen ez diren hitzak azpimarratzeko eskatuko diegu. Esanahia, lehenik, testuinguruari so eginez eta guztion artean argitzen saiatuko gara. Ez badute lortzen, hiztegira joko dugu. Geroxeago, irakurritakoari buruzko elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *Tontorpeko Usurramendi ikastolakoek noiz jarri zuten irratia martxan?*
- *Berria irakurri ondoren, aipatuko al zenukete zertarako balio izan dien irratia esperientziak?*
- *Zer da zure ustez "kritikoa" izatea?*
- *Gustuko izango al zenukete zuek ere antzeko esperientzia edukitzea? Posible al dugu? Zer da egin dezakeguna?*

## 6. Komunikazioa. Zer jakin nahi duzu?

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Unitate honetan komunikazioari eta komunikabideei buruz hitz egingo dugunez, hasteko, beraienez komunikazioa zer den eta nola eman daitekeen galdetuko diegu.

Hurrek botatako hipotesiak idatzi ondoren, liburuan agertzen den definizioa irakurri eta beraiek lehen egindako definizioekin alderatuko dugu. Nahi izanez gero, hurrek botatako definizioekin aldizkaritxo bat osa dezakezue.

Segidan, komunikazioa eta komunikabideei buruz zer jakin nahi duten idazteko eskatuko diegu, horrela guztiak izango dute zeresana talde handiko elkarrizketan. Idatzi ondoren, bakoitzak berea taldeari adierazteko eskatuko diegu.

Horren ostean, hurrei, irratsaioetan agertzen diren sailen artean zein joratu nahiko luketen galdetuko diegu. Agian, hurrek planteatzen dizkizueten interesen arabera unitatearen garapena zerbait moldatu beharko duzue.

## 7. Musika ikasten ari gara

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or./CDa/CD-ROMa*

Imanol Urbietak sortutako gaiaren inguruko abestia ikasi eta irakurriko dugu. Bertan komunikabideak eta euskara ditu hizpide.

Gogoratu CD-ROMean abestia entzun eta grabatzeko aukera daukazuela.

## Musikako lan-koadernoko proposamenak

### 8. Kolpatzen ala astintzen?

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 38. or., 6.1. fitxa/CDa, jarduerak*

Interesgarria izango litzateke CDa ipini aurretik zenbait adibide ikustea eta musika tresnak esku artean harturik zenbait froga egitea.

### 9. Ezkerra ibiltzen da (Xirulin xirula)

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 39. or., 6.2. fitxa/CDa, jarduerak*

Orain arte, klabe, triangelu, maraka eta antzeko tresnez baliatu gara musika egiteko. Musikarien txokoan eginiko tresnekin ere jardun dugu, eta gure gorputza ere soinu iturri bezala erabili dugu. Aipaturiko tresna bakoitzak bere tinbrea du eta intentsitatea lantzeko aukera aparta eskaini digute. Baina *altura* lantzeko aukerarik ez dugu izan. Hemendik aurrera, nota desberdinak, eta melodiak sortzeko aukera emango digun musika-tresna bat izango dugu esku artean, txirula. Txirula musika-tresna melodikoa da. Zergatik txirula? Besteak beste, erabilgarria, funtzionamendu errazekoa, arina eta merkea delako. Arrazoi gehiago behar al dituzue?

Baina alde “txarrak” ere baditu, haizea kontrolatu eta zuloak ongi tapatu beharra dago. Bi baldintza hauek ongi betetzen ez badira, sortuko dugun soinua desatsegina izango da, eta are gehiago haur talde oso bat ari denean lehen froga hauek burutzen. Beraz, pazientzia ugari beharko dugu lehen saio hauetan.

Haizearen kontrolak garrantzi handia duela azpimarratu nahi genuke. Txirula, gaztelaniaz, “flauta dulce” esaten da. Dulce-ren esanahia kasu honetan argi eta garbi dago, ez du azukre edo eztiarekin zer ikusirik. Goxo jo behar dela esan nahi du.

Jolas bat proposatzen dizuegu putz egitea dela eta. Ping-pongeko pilotak, alfonbra bat, eta bi koloretako zinta isolatzailea behar dituzue, ahal bada, berdea eta gorria. Haurrak taldetan banatu ondoren jolasari ekingo diogu.

Pilotak, alfonbra gainean dantzan ipiniko ditugu. Nola? Putz eginaz, noski. Talde bakoitzak ilara bat osatuko du eta hauetako lehenengo partaidea alfonbraren ertzean etzanda ipiniko da. Aho aurrean pilota bat edukiko du. Irakaslearen esanera haizea bota eta pilota mugitu beharko dute. Helburua, ahotik 8 bat zentimetrora ipini dugun lehen zinta isolatzailea (berdea) gainditu, eta aldi berean, metro bat ingurura jarri dugun bigarren koloreko zinta (gorria) ez pasatzea izango da.

Haur guztiek parte hartu ondoren, zinta gorria gero eta gertuago jartzen joango gara. Ondorioz, putz egitea gehiago kontrolatu beharko dute, goxoago putz egin beharko dute, alegia.

Arrisku pittin bat duen arren, kandela batekin beste jolas bat egingo dugu. Irakasleak, piztutako kandela, ikasleen aurretik pasatuko du. Hauek, putz eginaz, kandelaren sugarra mugitzea lortu behar dute, baina noski, itzali gabe.

Baina txirulara itzuliz, hasteko, txirula zein eskurekin hartzen den eta hatz lodiaren kokapena zein den ikasiko dugu orrialde honetan agertzen den abestiaren laguntzarekin.

## 10. Astoketan, txorroketan

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 40 .or., 6.3. fitxa/CDa, jarduerak*

Jakin badakigu, hatz bakoitzak bere izena duela, baina nork ez ditu beste izen hauek ezagutzen: Txorro, Morro, Piko, Tailo, Ke. Bada, guk izen horiek erabiliko ditugu txirula jotzen ikasteko, eta lehen-lehenik, lan-koadernoko 40. orrialdean agertzen den abestia ikasiko dugu. Horrela, berehala ikasiko ditugu bost izenak eta izen bakoitza zein hatzi dagokion.

Bestalde, jolas egiteko abesti bat da, eta proposatzen den jolasa aspaldiko jolasa da. Hala ere badu zailtasun bat: ukimenez asmatu behar dela zein hatz den.

Hori zailegia egiten bazaizue, beste adibide hau proposatzen dizuegu.

Haur guztiak eta irakaslea borobilean eserita jarri. Irakaslea hasiko da jolasean. Bi eskuak atzean gordeta ditu eta hatz bat du aukeratua. Abestia bukatzean, ikasle bati galdetuko dio ea zein hatz daukan gordeta. Ikasle horrek asmatzen badu bera izango da hurrengo bueltan hatza aukeratuko duena eta berak nahi duen lagunari galdetuko dio ea zein daukan gordeta. Beti, asmatzen duena izango da hurrengo bueltan hatza gordeko duena. Asmatzen ez badu, hatza gordeta duenak beste haur bati galdetuko dio, eta horrela asmatu arte.

## 11. Txirula ikasten

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 41 .or., 6.4. fitxa/CDa, jarduerak*

Iritsi da txirularekin lehen frogak egiteko unea. Garai bateko trenen txistu hotsa imitatu nahi izan dugu. Horretarako, Si nota jo beharko dugu, pentagramaren erdiko marra hartu duen nota. Nota honekin, Do-tik hasi eta Si-raino iristen den eskala ikusi dugu jadanik, aurreko unitateetan hasita.

Marrazkian ikus daitekeen bezala, txorro atzean kokatu dugu bertako zuloa tapatzeko zereginarekin eta morrok, aurre aldeko zuloetatik ahoarengandik gertuen gelditzen den zuloa tapatuko du. Soinua egokia den frogatu beharko dugu lehenik. Egokiena, hurrek banan bana jotzea izango litzateke, baina azterketa hori pasa aurretik talde lana egingo dugu. Irakasleak, ahoz, Si esanaz, lau taupadetako sekuentziak esango ditu eta ikasleek, txirulaz, errepikatu. Sekuentzia horietako bat trenaren azpian agertzen dena izan daiteke. Honela, konbinazio ugari egin daitezke.

$\theta \theta \ \varepsilon\varepsilon \ \theta$   
SI - SI / SiSi - SI /

$\varepsilon\varepsilon \theta \ \varepsilon\varepsilon \ \theta$   
SiSi- SI / SiSi - SI /

$\varepsilon\varepsilon\varepsilon \ \varepsilon\varepsilon \ \theta$   
SiSi-SiSi / SiSi - SI /

$\varepsilon\varepsilon\varepsilon \ \theta \ -$   
SiSi-SiSi / SI /

$\varepsilon\varepsilon \ \theta \ \theta \ -$   
SiSi- SI / SI /

Azkenik, abestu eta, trena tunel barrenetik ateratzen denean, txirula joko dugu.

## 12. Neurriak neurri

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 42 .or., 6.5. fitxa*

Gure eguneroko betebeharretan gauzak neurritz egitea oso garrantzitsua da. Musikan ere, zer esanik ez.

Biko neurrian dauden konpasak aztertuko ditugu. Hartzak zinera joan zireneko adibidearekin jarraituz, konpas bakoitzean bi aulki bakarrik ditugula esplikatu diegu ikasleei.

Ariketako lehenengo konpasa ongi legoke, bi hartza ama baitaude, eta noski, hauek, bakoitzak bana, bi aulki behar dituzte, ez gehiago eta ez gutxiago. Bigarren konpasa aldiz, gaizki dago. Bi hartz txikiak (kortxeak) aulki batean moldatu dira baina, hartza aita ipurtandiak bi aulki behar dituzenez, batuketa simple bat egin (1 + 2) eta emaitza ez da neurriak proposatutakoa. Ondorioz gurutze bat egin beharko zaio gainean. Eta horrela beste guztiak ere banan-banan zuzendu.

Neurri ariketa hauek arbelean egin daitezke. Nahi izanez gero, figura musikalak erabili aurretik hartzen marrazkiak egingo ditugu. Pixkanaka, marrazkiak figura musikala bihurtuko ditugu.

## 13. Diktaketa erritmikoa eta melodikoa

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 43 .or., 6.6. fitxa*

35. orrialdeko diktaketak bi konpasetakoak izan ziren, hau berriz laukoa dugu. Perkusiozko edozein tresna erabiliz, ikasleek erraz barneratuko duten sekuentzia simple bat asmatu beharko dugu.

Hona adibide bat: dan – dan / di-lin – dan / dan – dan / do - on //

θ θ εε θ θ θ η

Behin eta berriro errepikatu ondoren, eskema ahoz ere esango dugu.

Ondorengo urratsa, eskema erritmikoari melodia ipintzea izango da. Baina baldintzatuta aurkitzen gara, bi nota besterik ezin izango baititugu erabili, Mi eta Si. Horretarako, musika tresna melodiko bat beharko dugu. Bi notak aurkeztu eta aurrera. Mila konbinazio egin daitezke, baina lehenengo froga izanik ez gehiegi konplikatu.

Adibidez:

Mi – Mi / SiSi – Si / Mi – Si / Mi //

θ θ εε θ θ θ η

Azkenik, haur taldeak, irakaslearen musika tresnaren laguntzaz, irakurketa intonatua egingo du.

## 14. Puxika musikariak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 44 .or., 6.7. fitxa*

Gorago aipatu bezala, Do-tik Si-ra doan eskala osatu dugu. Errepasa dezagun.

Gorakako norabidea duten puxikak margo batez apaindu. Beherakako norabidea dutenak, berriz, beste batez.

## 15. Alzaporru fandango, dantza

Materiala: CDa, jarduerak

*Alzaporru fandango!*  
*Sorginak Durangon.*  
*Alzaporru fandango!*  
*Ez dinat emango.*  
*Alzaporru fandango!*  
*Sorginak Durangon.*  
*Alzaporru fandango!*  
*Ez dinat emango.*

*Urkiolan, Anboton,*  
*Udalan eta Txindokin,*  
*akelarrez akelar,*  
*sorginak akerrarekin.*  
*Urkiolan, Anboton,*  
*Udalan eta Txindokin,*  
*akelarrez akelar,*  
*sorginak akerrarekin.*

Jarraian dituzue dantzaren argibideak.

### • MUGIMENDUA eta DANTZA



Jarrera: erdigune berdineko bi korro:

- 1.- Sorgin dantzariena.
- 2.- Sorgin adoratzaielena.
- 3.- Erdikaldean akelar beltzaren adierazlea.

Mugimendua:

A aldian.

1. korroak:

- 1, 2, 3, 4: aurrerantz eta korroa laburtuz.
- 5, 6, 7, 8: beheraka.
- 9, 10, 11, 12: goraka.
- 13, 14, 15, 16: jirabiraka.

-Beste 16 taupadetan, mugimendu berdinak baina atzeraka eginez.

2. korroak:


- Leku berean beherantz eginez eta gorputza zutituz ondorengo gorakadan, eta horrelaxe A aldiari amaiera eman arte.

B aldian.

- Talde biak korro-korroan mugituz, alde batera eta bestera, baina norabide ezberdinean jiratur.

Gorputz espresioa:

Dantzaren arabera antzeztu nahi ditugun pertsonaia guztien nortasuna gureganatuz eta adieraziz: batetik sorginak, bestetik akelar beltza, eta horien tartean adoratzaielen multzoa.



## 16. Trankatan, trankatran.

*Materiala: CDa, jarduerak*

*Zaldi txiki-txiki bat  
ikusi dut aitaren baserrian,  
gainean jarri naute  
(E)ta poz-pozik ibili naiz mendian.  
U-u-u! Adio! U-u-u! Mari!  
Trankatran zalditxo,  
trankatran arin,  
banoa, menditik banoa kantari.*

*Mendiz mendi egunetan gabiltza  
Anboton eta Ernion.  
Gora eta gora egingo al dugu?  
Zaldiak baietz dio.  
U-u-u! Adio! U-u-u! Mari!  
Trankatran zalditxo,  
trankatran arin,  
banoa, menditik banoa kantari.*

Talde giroan kantatzeko abestia dugu hau. Kantatzeak plazerra sortzen du, eta garrantzitsua da gure ikasleak taldean kantatzera ohitzea. Nahi izanez gero, klabeak eta txinatar kaxak hartu eta zaldien pausaldia ere marka dezakezue kantatzen duzuen bitartean.

## 17. Irratsaioa lantzen, musikaren garrantzia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 4. lan-koadernoa , 14. or.*

Gure irratsaioa martxan jartzeko lehenengo gauza programaren sintonia aukeratzea litzateke. Horretarako, haur bakoitzak ezagutzen duen eta gustuko duen abesti bat aukeratu eta lan-koadernoko fitxaren goialdean agertzen diren honen inguruko datuak idatzi beharko ditu. Ondoren, haurrek aukeratutako abestien artean gelako irratsaioarako bat aukeratu beharko dute taldean. Aukeraketa botazio bidez edo zozketaz egin dezakezue, hori zuen esku!

Irratsaioaren sintonia nagusiaz gain, haur bakoitzak beste abesti bat aukeratu beharko du musikako sailean aurkezteko eta fitxaren bigarren zatian abestiaren datuak idatzi. Halere, musikako sailean agertzekoa denez, segidan, datu horiek erabiliz abestia irratsaioan nola aurkeztuko genukeen landu beharko dugu.

## **18. Aho hizkuntza, hizkuntza idatzia, gorputz hizkuntza**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8 eta 9. or.*

Ferminen orrialde honetan Maddaleni luzatzen dion galderaren erantzuna irakurri ondoren, hitz egin ahal izateak gizakiari suposatu zionari buruzko iritzia idatziz agertzeko eskatuko diegu hurrei. Haurrek idatzitako iritzien inguruan elkarrizketa bat bultzatzen badugu, segidan, hizkuntzatik aparte, komunikatzeko beste zer era ezagutzen dituzten galdetuko diegu. Horren ostean, diktaketa bat egingo diegu, ahoz esandakoa gogoratzeko gizakiak asmatu zuen hizkuntzaren beste forma bat zein den argituko diona.

*“Ahoz esandakoa gogoratu eta transmititu ahal izateko, orain dela 5.000 urte hizkuntzaren beste forma bat asmatu zen: idazketa.”*

Diktaketa egin ondoren, geuk testua arbelean idatzi eta haurrek autozuzenketa egingo dute. Segidan, taldean, haurrek egindako akatsak zeintzuk izan diren aztertu eta landu egingo ditugu.

Gorputzaren bidez ere mezu asko bidaltzen ditugula irakurri ondoren, beraien ustez zer den argazkietan agertzen diren pertsonen gorputzaren keinuen bidez adierazten dituguna idatziko dute.

## **19. Gorputza ere komunikatzeko tresna bat da**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Unitate didaktiko honetan irratia da protagonista, eta bertan hitza izango da komunikaziorako tresna nagusia. Baina ez dugu ahaztu behar gure gorputza eta aurpegiaren bidez ere gure sentimenduak komunikatzen ditugula. Beraz, aurpegia eta gorputza erabiliz sentimendu hauek komunikatzen saiatuko gara: harridura, beldurra, nazka, poza, esfortzua, haserrea, nekea, amodioa, gorrotoa, maltzurkeria...

Ondoren, gelako neska mutil bakoitzak banan-banan, keinu ezberdin bat egingo du gelako beste guztiek asma dezaten zer adierazi nahi duen.

## **20. Ikerketa plastikoa: irudien komunikazio gaitasuna**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

Irudien bidez ere komunikatzen gara. Gizarte bakoitzak, garai bakoitzean, bere sinboloak sortzen ditu. Sinbolo eta zeinu horiek kultura horretako partaideentzat esanahia dute, norbanakoak interpretatu egiten ditu eta komunikazio sistema osoak sortzen dituzte askotan. Ondorioz, ezinbestekoa zaigu, gizarte jakin horretan ibiltzeko, ikur eta sinbolo horiek ondo ezagutzea.

Iker ditugun, bada, eskura ditugun irudiok, eta banaka, nahiz taldeka, osa dezagun hauen bilduma. Bilduman jarriko ditugun irudiak sailkatuta eta izenburu batekin jarriko ditugu. Haurrekin erabaki lortzen dituzuen irudien arabera nola egin sailkapena (markak, euskal sinboloak, beste herrietako sinboloak, arauak adierazten dituztenak, informazioa ematen dutenak...). Ikur bakoitzaren inguruan, elkarrizketa burutuko dugu.



\* Identitate kultural edo erlijiosoa adierazten dutenak: ikurriña, lauburua, Kilometroak, Ibilaldia, Nafarroa oinez, Araba Euskaraz, gurutzeta, David-en izarra...

- *Ezagutzen al ditugu?*

- *Kalean horrelakoren bat (lauburua) jantzita pertsona bat ikusteak zer adierazten digu?*

- *Guregan eragin berdina du lauburua daraman pertsona Euskal Herrian ikusten dugunean eta hemendik kanpo ikusten dugunean?*

- ...

\* Markak (Nike, Adidas, Koka-kola)

- *Nolako logoak egiten dituzte?*

- *Eraginik badute salmentetan? Zergatik iruditzen zaizu gertatzen dela hau?*

- *Normala iruditzen al zaizue jantzetan marka handi-handi eraman beharra, publizitatea eginez, eta gainera horregatik hainbeste ordaintzea?*

- ...

\* Informaziozkoak (trafiko seinaleak, informazio panelak, informatika mundukoak, internet, Office-ko ikonoak...)

- *Zertan laguntzen digute?*

- ...

\* Elkarbizitza arautzekoak (trafiko seinaleak, arauak, debekuak adierazten dituztenak...)

- *Beharrezkoak al dira? Zergatik?*

- ...

## **21. Ikerketa plastikoa: koloreen bidez ere komunikatzen gara**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

Kolore guztiek ez digute sentipen bera sortzen. Batetik, kultura bakoitzak ditu kolore jakin batzuekiko kode mailako interpretazioak. Gurean beltzak dolua adierazi dezake, eta zuriak garbitasuna. Japonian zuria doluaren adierazlea da. Txinatarrentzat gorria zorte onaren adierazlea da... Eta bestetik, koloreek ingurugiroan sortzen dituzten sentazioak ere hainbat dira. Horren adierazle da kolore *hotzen* eta kolore *beroen* arteko sailkapena.

Lehenik kolore hotzak eta beroak zeintzuk diren aztertuko dugu. Hotzak: urdina, berdea, morea... Beroak: gorria, laranja, horia, granatea...

- *Zergatik esaten zaie batzuei kolore hotzak direla? Eta besteei beroak direla?*

- *Zer kolore erabiltzen dira ospitaletako hormak margotzeko? Eta etxeetakoak?*

- *Zuei ere sentzasio hori sortzen al dizuete?*

Kolore hotzek eta kolore beroek sortzen dituzten sentazioak hautemateko, plastikako lan bat burutuko dugu. Bi konposizio egingo ditugu, figuratiboak ala ez figuratiboak izan daitezkeenak. Konposizio bera egingo dugu bietan, baina batean kolore hotzak bakarrik erabiliz eta bestean kolore beroak bakarrik erabiliz. Talde handian egin ditzakegu, biltzeko paper zuri handietan. Talde txikian, bi kartulina zuri handi emanaz talde bakoitzari. Edota banaka, bakoitzak A-3 neurriko kartulina erabiliz. Materialari dagokionez, tenperak edo argizariak erabiltzea litzateke egokiena.

## 22. Komunikazioa historian zehar

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10 eta 11. or.*

Hitz egin, idatzi, gorputzaren bidez adierazi... Oraingo honetan historian zehar gizakiok komunikatzeko zer era erabili ditugun gogoratu eta aztertuko dugu.

Hasteko bi orrialde hauen bakarkako behaketa-irakurketa egin dezatela esan, helburua irudiak eta testua erlazionatzea dela garbi adieraziz. Hau egin ondoren, komunikatzeko era ezberdin hauek alderatuko ditugu talde handian: historian, onurak, arazoak...

Historian zehar erabili ditugun komunikatzeko era hauek gogoratu eta aztertu ondoren, gaur egun gehien erabiltzen ditugunak ikusiko ditugu: telefonoa, artea, irratia, telebista, egunkaria...

## 23. Nor zerekin? Hitzen bidezko eta hitzik gabeko komunikazioko joko kooperatiboa

*Lan egiteko era: Talde handian*

Ikasle ilara bi egingo ditugu bata bestearen aurrean jarririk. Ilara batekoei papertxo batzuetan idatzirik emango diegu pertsonaia baten izena eta beste ilarakoei pertsonaia horiek erabiltzen dituzten osagarrien zerrenda.

Lehenengo ilarako ikasleak txandaka aurreratu eta mimikaz eta onomatopeiez lagunduta euren pertsonaiari dagokion ekintza antzeztuko dute. Adibidez; motorista, motorra arrankatu eta gidatu. Beste ilarako ikaslea (motorra) bere osagarria dela konturatzean, aurreratuko da eta esango du: "Zu motorista zara eta ni berriz motorra". Orduan bien arteko ekintza antzeztuko dute.

- Pertsonaia posibleak: ileapaintzailea, pintorea, motorista, orkestra zuzendaria, jostuna, tenislaria, medikua, artzaina, Tarzan, pirata, animalia hezitzailea, maisua, suhiltzailea...

- Osagarriak: orrazia, pintzela, motorra, batuta, orratza, teniseko erraketa, endoskopioa, ardia, tximinoa, lora edo ezpata, tigre, liburua, mangera...

Bukatzerakoan elkarrizketa sortuko dugu.

## 24. Olerkia: Ring-ring

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 75. or.*

Telefonoa, Graham Bellek kasualitatez asmatutako asmakizuna izan zela ikusi dugu, baina gaur egun bi pertsonen artean komunikatzeko askotan erabiltzen dugun komunikabide ezaguna da.

Antton Kazabonen olerkia irakurri ondoren, telefonoz hitz egiterakoan gehien erabiltzen ditugun formak landuko ditugu: —Bai, esan! , —Usurramendi ikastola!, —Nor da? ...

Eta gainera imitazioz olekitxoak sortuko ditugu denon artean. Lehen zatia hartuz gero;

*Ring-ring telefonoak*

*Nor da?*

*Juanita Praxku izango da.*

Bigarrenean, *eskolan* hitza ordezkatu dezakegu *mendian, etxean, kalean...* esanaz.  
Hirugarrena zailagoa dugu baina saia gaitezke. *gu bai gaudela goxo, pastela eta bizkotxo...*

Laugarrenean, *Bai!, blai!, alai...*

Bosgarrenean: *hurrengo igandera arte, nik ez dut hartuko parte, hau Hernani eta hura Lasarte, bost istorio eta ehun pasarte, ni Aldalur eta hi Rekarte...*

Eta berriak ere sor ditzakegu;

*Ring-ring...*

*Amaia!*

*Zu bai zarela lasaia!*

*Ring-ring...*

*Amaiur!*

*Utzi nauzu zur eta lur!*

*Gutxi hitz egin eta esan agur!*

Eta ez telefonoarekin bakarrik.

Ate joka;

*Tan, tan!*

*Zu etxean eta ni kalean!*

*Hotz dagoela kalean...*

Kanpai hotsekin:

*Tilin-tilin!*

*Ni zurekin eta ni zurekin.*

*Bazkariak on egin...*

*Tolon-tolon!*

*Hotz dagoela? Ba, hor konpon!*

*Talan- talan!*

*Kanpaiak elizetan.*

*Enarak beti hegan*

*Dantzan herriko plazan...*

## **25. Egin dezagun geure telefonoa!**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

Bakoitzak geure telefonoa egiteko bi jogurt pote eta hari luze bat besterik ez ditugu behar. Jogurt poteak dekoratu ondoren, azpialdean zulotxo bat egingo diegu. Zulotxo horietatik haria sartu, korapiloa egin eta, haria tenkatuta jarri ondoren txukumtxuak kontatzera!

## 26. Telefonoz hitz egiten

*Lan egiteko era: Talde txikian*

Gure telefonoarekin hitz egingo dugu. Irudimena lantzeko eta barre pixka bat egiteko honako jolas hau egin dezakegu.

Launaka bilduko gara, eta haur batek besteari mezu bat esango dio. Honek hurrengo haurrari mezua errepikatuko dio, baina zerbait aldatzen. Eta horrela laugarren haurrari heldu arte. Ea zer gertatzen den.

Adibidez:

- *Bihar nire amarekin zoologikora joango gara tximuak ikustera.*
- *Bihar nire tximuarekin zoologikora joango gara ama ikustera.*
- *Bihar tximua ama eta ni hondartzara joango gara.*
- *Bihar hondartzan ama eta tximua galduko dira.*

## 27. Abestia: Telefonoa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Itoiz taldearen *Telefonoa* izeneko abestia ikasi egingo dugu. Abestearekin batera dantza egiteko ere aprobetxatu dezakegu.

## 28. Mezu sekretuak, kode ezkutua!

*Lan egiteko era: Binaka*

*Materiala: Material osagarria.*

Hurrei asko gustatzen zaien jolas bat egiteko aukera eskainiko diegu: lagunartean mezu sekretuak bidaltzeko aukera.

Horretarako, material osagarrian alfabetoaren letrekin agertzen diren bi borobilak moztu eta txikia handiaren gainean eranskailu batekin kokatu beharko dugu. Aurretik igorleak eta hartzaileak adostutako letren parekotasuna oinarri bezala hartuz, bidali nahi dugun mezua letrak borobil handian dagozkien letrekin alderatu eta hauek idatziko ditugu.

Adibidez, Fermin eta Maddalenek bere izenaren lehen hizkiak aukeratu (F/M) eta borobil txikiko "F" borobil handiko "M" rekin parekatzeko adosten badute, erreferentzi hori hartu beharko dute beren mezuak idatzi eta deszifratzeko.

## 26. Testua: ipuina

*Lan egiteko era: Talde handian*

Hurrei, irratsaiorako ipuina egiteko proposamena luzatu baino lehen, ipuinen testu-ezaugarri batzuk taldean gogoratuko ditugu.

Ipuinen funtzioari buruzko hausnarketa egiteko proposatuko diegu.

- *Zer funtzioa du ipuinak? Zertarako ekoizten dugu?*

- ...

Garbi dago kasu honetan bere funtzioa irakurleari ondo pasaraztea eta gozaraztea dela, baina beste funtzio batzuk izan ditzakeenez (ikasgaia etiko bat luzatzea, adibidez)

haurren erantzunak nondik nora doazen kontuan hartuko dugu, komeni bada, eztabaida bultzatzeko.

Segidan, autoreei buruz egingo dugu gogoeta.

- *Zeinek idazten ditu ipuinak? Ezagutzen al duzue idazleren bat? Idazle guztiek antzeko ipuinak idazten al dituzte?*

- ...

Beha ezazue ipuinen txokoan jartzen duena eta atalez atal erreparatu. Nahi izanez gero, ilustrazioen inguruko gogoeta ere zabaldu dezakegu.

### **30. Irratsaiorako prestaketa: ipuina ekoizten (gai librea)**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 15,16 eta 17. or.*

Ipuinaren inguruko hausnarketa egin ondoren, lan-koadernoan norberak asmatutako ipuina idatzi eta ilustratzeko aukera izango du.

Beti bezala, idatzi aurretiko urratsak jarriko ditugu martxan. Planifikatzen ari garen honetan, argi utziko dugu zer egingo dugun eta zein helbururekin. Ondoren denon artean ipuina osatzeko behar ditugun ideiak jaurtiko ditugu, gogoratu binomioaren ideia aprobetxatu dezakezuela ideiak errazago sortzeko. Ideia guztien artean, bat aukeratu eta hura jorratzen hasiko gara, eta honen inguruan botatako proposamenak eskema moduan arbelean idazten joango gara. Ondoren, ikasleek binaka (edo banaka, ikasleen bat horretarako gai ikusiz gero) folio batean euren ideiak garatzeari ekingo diote. Ekoizpenaren prozesu osoa ez dudu inolaz ere saio batean garatu beharrik. Gai honetan, aurreraxeago, elkarrizketa lantzen denez, bultzatu ikasleak euren ipuinetan elkarrizketak ere sartzera. Behin lan hau burututa ipuinaren zirriborroa izango genuke, orduan irakasleak egoki ikusten dituen zuzenketak egitera bultzatuko du ikasle bakoitza. Gero ikasle bakoitzak ipuina letra ulergarri eta garbiarekin bere lan-koadernoan kopiatuko du.

Gogoratu ipuina CD-ROMean editatzeko aukera ere baduzuela, asmoa hori bada, komenigarria litzateke, gaia zein den irakurri ondoren, CD-ROMeko hondoak eta pertsonaiak begiratzuz ideiak hartzea eta hauen inguruan ideiak sortzea eta garatzea.

### **31. Ipuin literarioa: Liburuak gure lagunak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Gai honetan ez dugu liburu zehatzik proposatutako. Liburu guztiek baitute zerikusia komunikazioarekin. Eta horixe da haurrek hausnar dezaten nahi duguna, ipuinek komunikatzen digutena aztertzea (beldurrak, identifikazioak, poza, tristura...). Horretarako gaiaren inguruko elkarrizketa gara dezakezue. Beraz, gure liburutegiko liburuen artean, edota etxetik ekarritakoen artean egizue aukeraketa eta disfrutatzeraz! Bukatzen dugunean, liburua liburutegian jarriko dugu haurren eskura eta nahi badute txandaka etxera eramateko aukera eskainiko diegu.

### 32. Artelanak: Picasso eta Chagall

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.*

Artea ere komunikatzeko beste era bat dela berriro adieraziz hasiko dugu artelan hauen azterketa. Artistek sentipenak eta emozioak komunikatzen dizkigute beren artelanen bidez.

Orrialde honetan bi artelan ikusiko dituzue, bata Picassoren “*Gernika*” eta Marc Chagallaren “*Urtebetetzea*” bigarrena.

Hasteko, Picasso eta Chagallaren biografiak landuko ditugu.

**Picasso, Pablo.** Pintore espainola (Malaga, 1881–Mougins, Itsas Alpeak, 1973).

Oso txikitatik erakutsi zuen trebetasun harrigarria marrazkirako eta pinturarako, eta Bartzelonako arte ederretako eskolan ikasten hasi zenean, bertako errealmismoko maisuek bezain ongi margotzen zuen. 1904an Parisen finkatu eta aire zurbileko erretratu delikatuak egin zituen, arlekinak, ikaroak eta saltinbankiak gris-arrosean marraztuz. 1907ra arte “*Aro Arrosa*” esan ohi dena osatu zuen, munduaren ikuspegi baikor batean. Figurazioa alde batera utzi eta giza irudiaren errepresentazio berri bat proposatu zuen, perspektiba eta espazioa etenda. Honenbestez, kubismoa izeneko mugimenduari eman zion hasiera. Geroago, surrealismoaren eraginez, objektuen eta pertsonaien metamorfosi harrigarriak proposatu zituen. Bere obren artean hauek aipatuko genituzke: “*Gernika*”, “*Francoren ametsak eta gezurrak*” eta “*Avignongo Andereñoak*”.

**Chagall, Marc.** Pintore, grabatzaile eta diseinatzaile frantsesa, jaiotzez errusiarra (Vitebsk, 1887–Saint Paul de Vence, 1985). San Petersburg-en egin zituen lehenengo arte-ikasketak, gero Parisera joan eta Montparnasseko abangoardiako kide izan zen. Paris eta Proventzako juduen folklorea inspiratu zen. Kubismoaren asimilazioa, berezkotasuna, ikonografiaren logika falta eta kolore-aniztasuna dira bere obraren ezaugarriak. Oso artista emankorra izan zen (*Neure Emazteari*, 1933-44; *Moises Legearen Harlauzak Jasotzen*, 1950-52).

Biografiak landu ondoren eta artelan bakoitzaren azpialdean zer jartzen duen irakurri aurretik, hurrei, beraien iritziz, artelan bakoitzean artistek zer adierazi nahi izan zuten galdetuko diegu. Segidan, artelanen oinean jartzen duena irakurri eta hurrek botatuko hipotesiekin alderatuko dugu.

Oraintxe dugu aukera hainbat arte liburu gelara ekarri eta obrek komunika dezaketenaz hitz egiteko.

Ondoren artelanaren inguruan aurkezten diren jarduerak ez da inolaz ere saio berean eta era jarraituan lantzekoa. Astero, jarduera bat edo bi egin ditzakezue.

### 33. Lerro kurbatuak artelanetan

*Lan egiteko era: Bakarka*

Chagall-en pintura aztertzen badugu margolariak lerro kurbatuak erabiltzen dituela ikusi ahal izango dugu. Horretarako, koadroaren handitutako fotokopia bat hartu, gainean “tipula” papera jarri eta irudien lerro nagusiak kalkatuko ditugu. Ondoren, haur bakoitzak nahi duen moduan, beste orri batean eta lerro kurbatuak erabiliz, bakoitzak nahi duen konposizioa egin dezake. Beharazi, era honetako lerroak erabiltzeak irudiak nola leuntzen dituen.

### **34. Artelanaren eraldaketa**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Chagalen artelanean oinarrituko gara, edo maitasuna adierazten duen beste koadro baten eraldaketa egingo dugu gure sentimenduak adierazteko. Hartu artelana, eta atera fotokopia bat, liburukoa txiki samarra duzue horretarako, baina posible da dezente handitzea. Neurria kalkulatzeko, pentsatu argazki baten burua kokatu behar duzuela irudian azaltzen den buru bakoitzaren gainean. Maite dugun pertsona baten argazkia (laguna, etxekoa...) eta gure argazkia kokatuko ditugu irudiko pertsonen buru gainean. Lana nahi dugun moduan apaindu eta aukeratutako pertsonari oparitu diezaiokegu. Lan hau eiteko, aurreko jardueran “tipula” paperean egindako lerroetan ere oinarritu gaitzke.

### **35. Artelanen bidez komunikatzen**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 13.or.*

Haurrei, ideia, sentimendu, egoera edota sentsazio bat artelan baten bidez adierazteko eskatuko diegu. Gogoratu kolorearen erabileraz, lerroen erabileraz, konposizioaz... egin dugula lehenago gogoeta. Artelana egin ondoren, haur bakoitzak zer komunikatu nahi izan duen adierazi beharko du eta ahoz hori komunikatzeko zertaz baliatu den. Izenburu baten pean (“Artea komunikazio tresna” adibidez) ikastolako pasiloan haur guztien lanak, bakoitzak adierazi nahi duena aldamenean idatzirik duela, kokatuko ditugu edota guztien bilduma egingo dugu, nahi izanez gero, haurrek txandaka etxera eraman dezaten, aurreraxeago erakusketan jartzeko, txikiei erakusteko...

### **36. Ba al zenekien...?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 76. or.*

Irakurgaietan aurkituko duzuen testuan, munduko hizkuntzei eta euskarari buruzko datu batzuk ematen dira. Haurrei banaka irakurtzeko eskatu ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu bertan irakurritakoaren inguruan beren iritziak eman ditzaten. Puntu guztiei buruz hitz egiteko, haurrak borobilean jarri, eta txandak eman. Lehen haurrak, irakurgaietako lehen puntua irakurriko du, eta horri buruz dakitena edo duten iritzia azaltzeko eskatuko diegu besteei. Ondoren bigarren haurrak, bigarren puntua irakurriko du eta horrela puntu denak irakurri arte. Azken puntuan, norbanakoaren praktika eta ardurari buruzko hausnarketa bideratzea egokia litzateke, bakoitzaren eta guztion konpromezua bilatuz. Konklusio moduan, leloren bat edo karteltxoren bat presta dezakegu, gure buruei eta gure gelara datorrenari gure konpromezua gogorarazteko. Kartelarena ikastolako beste espazio batzuetara zabal daiteke. Beste taldeetakoiei zergatia edo helburua komunikatzea eraginkorragoa litzateke, jartze hutsa baino.

### **37. Hizkuntza aniztasuna, gizakion altxorra.**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

Irakurgaietako informazioarekin erlazio zuzena duen gezurra/egia ulermen jarduerari helduko diogu.

Hau egin ondoren, bakoitzak euskararen alde zer egiten duen eta egin dezakeen, eztabaidatzea proposatzen da.

### **38. Abestia: Behin betiko**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Euskararen aldeko Imanol Urbietaren abestia ikasi eta abestuko dugu.

### **39. Babelgo dorrearen istorioa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 77. orrialdea.*

*- Irakurgaietan irakurri genuen bezala, UNESCOren arabera, hizkuntzen desagerpena dugu mende honetako arazorik handienetako bat. Munduan milaka hizkuntza daude, baina, entzun al duzue inoiz hizkuntza ezberdinak nola sortu ziren adierazten duen istorioren bat?*

### **40. Ingelesa : languages & communication**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

#### **Materials:**

- World Map

Ask, as usual, what they have been working on.

*- Look at reddy. What is he saying? What is that strange writing? It is Chinese. He's saying something in Chinese. If we write it like in Basque or English, it sounds like 'Ni hao'. That means 'hello'. Do you know any other words in Chinese? Can you say hello in any other languages? Yes, Basque and Spanish and English and .....*

*- So how many languages do you speak?*

*- Do you know how many people speak those languages? How many people speak Basque in the world? 1000? 1,000,000?*

Continue helping the pupils to guess and helping them articulate the numbers.

Aprox. 600,000 speak Basque.



- *What about Spanish? Do more people speak Spanish? Where do they speak Spanish? (Show map) here in Spain and here in America.*

Aprox. 310 million people speak Spanish. Write the number on the bb.

- *What about English? Do you think more or less people speak English? Where do they speak English? (Show map) In England, The United States, Canada, Australia etc.*

Aprox. 420 million speak English (another billion as second and foreign language like you)

The geographical and mathematic concepts here are complicated. So whatever information the pupils are interested in is valid. Don't try to lecture them on the places and figures.

- *But English is not the language most spoken in the world. What do you think is the most spoken language? Chinese Show them China on the map.*

Aprox 900 million speak Chinese. Write it up.

If they are still interested in the topic, let them guess if there are more or less speakers for Arabic and Swahili and French. If interest is flagging, give them the rest of the numbers;

900 million (or one billion) speak Chinese (900,000,000)

420 million speak English (420,000,000)

320 million speak Hindi (India) (320,000,000)

310 million speak Spanish (310,000,000)

190 million speak Arabic (190,000,000)

115 million speak French (115,000,000)

25 million speak Swahili (25,000,000)

600 thousand speak Basque (600,000)

So if they speak Basque and Spanish and English they can communicate with aprox. 740,600,000 people + another billion who speak some English as a second or foreign language.

Practise saying hello in the different languages.

“Ni hao” Chinese

“Salaam alekom” Arabic

“Namaskar” Hindi

“Jambo” Swahili

#### **41. Olerkia: Latinez?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 78. or.*

Euskara, ingelesa, frantsesa, latina... Anjel Lertxundik idatzitako olerki honetan lau hizkuntzen inguruko hitz-joko polita agertzen da.

#### **42. Barrehiztegia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.*

Hasteko, komunikabide batzuei buruz Joxan Ormazabalek egindako definizio xeble horiek irakurri, komentatu eta berriak asmatuko ditugu. Segidan, eta definizio horiek abiapuntu bezala hartuz, haur bakoitzak komunikabide bat asmatu, hau era xeble batean definitu eta asmatutakoaren marrazkia egin beharko du. Bukatzeko, hurrek asmatutako komunikabideak fotokopiatu eta “Komunikabide berrien bilduma” egin dezakezue.

#### **43. Letra-zopa**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koaderno, 18. or.*

Hurrek, letra-zopa honetan, komunikabideen hamar izen aurkitu beharko dituzte.

#### **44. Antzinako kontakizunak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.*

Orrialde honetan aurkituko dituzuen hiru argazkien inguruko eztabaida egitea proposatzen dizuegu. Argazkiei behatu ondoren, bakoitzaren azpialdean agertzen den testua irakurriko dugu eta segidan hurren artean eztabaida bultzatuko dugu.

Adibidez, lehen argazkian, familia guztia sutondoan agertzen da. Ez dago ez telebistarik ez irratirik. Bakarrik “Argia” aldizkari bat agertzen da. Argazki honen inguruan, lehen ahozkotasanak zuen garrantziaren inguruko eztabaida bultzatu dezakegu galdera bat luzatuz:

- *Lehen ikus-entzuneko komunikabiderik ez zegoenean, familia osoa sutondoan elkartzen zen. Orain familietan elkarrekin patxadaz hitz egiten egoteko denbora hartzen al dugu?*
- *Eta gurasoek kontatzen dizkiguten ipuinak eta pasadizoak entzuten egoteko?*
- *Zer egiten dugu gaur egun familian elkartzen garenean?*
- *Telebistarik gabe jakingo al genuke zer egin? Zer galtzen zuten lehen? Zer galtzen dugu gaur egun?*

Antzeko zerbait egingo dugu beste bi argazkiekin.

#### **45. Elkarrizketa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 79. or.*

Kontakizunen inguruko eztabaida bultzatu ondoren, irakurgaietan aurkituko dugun elkarrizketa landuko dugu.

Hurrei, elkarrizketa banaka irakurtzeko eskatu ondoren, elkarrizketa “dramatizatu” dezakegu, hau da, galderak luzatuko dituen haur bat aukeratuko dugu eta geuk erantzunak irakurriko ditugu.

Bukatzeko, bertan agertzen diren ideien inguruan hitz egiteko gonbita luzatuko diegu.

- *Nori egin diote elkarrizketa? Zeinek egin dio?*
- *Zeri buruz egin dizkio galderak? Zer jakin nahi zuen galdera egileak?*
- *Suposatu al dezakezue zer izan zen gure aiton-amonentzat kaxa txiki batetik pertsonen ahotsak sortzen zirela ikustea?*
- *Zer da gehien harritu zaituztena Esperanza Alustizak azaldu dituen gauzen artean?*
- ...

#### **46. Testua: elkarrizketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Irakurgaietako elkarrizketa oinarri bezala erabiliz, elkarrizketen funtzioa eta idazketa sistemaren ezaugarriak landuko ditugu, hau da, egitura eta puntuazioa (galdera-marka, gidoia...).

Hasteko, hau guztiaren inguruan haurren teoriak zeintzuk diren jakiteko galdera sorta bat luzatuko diegu:

- *Zertarako uste duzue egiten direla elkarrizketak, zer funtzioa dute?*
- *Nork egiten ditu normalean elkarrizketak? Nori zuzenduak?*
- *Beha ezazue irakurgaietako elkarrizketa eta esan, zuen ustez, zein den elkarrizketa baten oinarrizko egitura.*
- *Izenburua zertarako uste duzue jartzen dela? Zer erlazioa dute izenburuak eta elkarrizketan agertzen denak?*
- *Zein komunikabidetan egin daitezke elkarrizketak? Egunkarietan bakarrik?*
- *Zein pertsonaia agertzen dira elkarrizketa batean?*
- *Konturatu al zarete nola adierazten den testuan noiz hitz egiten duen elkarrizketatzaileak eta noiz elkarrizketatuak?*
- *Nola adierazten da galdera dela?*

#### **47. Irratsaioaren prestaketa: elkarrizketa**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 19. or.*

Elkarrizketaren inguruko hausnarketa egin ondoren, 17. orrialdean agertzen den mikrofonoak irratsaioarako zerbait ekoiztu behar dugula adierazten digu. Beraz, lan-koadernora joan eta irratsaioarako elkarrizketa bat prestatu beharko dute.

Haurrak launaka banatuko ditugu. Lan taldeak osatu ondoren, talde bakoitzak nor elkarrizketatu behar duen, zein gairen inguruan eta zer nolako galderak egingo dizkioten erabaki beharko du. Lauren artean galdetegia prestatu eta talde handian zuzenketa bideratu ondoren, haur bakoitzak galdetegia bere lan-koadernoan kopiatu beharko du. Kazetarien lana egin behar dugunez, etxean grabatzaile txikiren bat nork duen galdetuko dugu ikastolara egun batzuetarako ekartzeko. Inork edukiko ez balu, grabazioa ikastolako kasete batekin egin beharko lukete. Galdetegia eta grabatzailea prest dituztenean, talde bakoitza aukeratutako pertsonaiari elkarrizketa egitera bidaliko dugu. Haurren lana errazteko, komenigarria litzateke irakasleak aurretik elkarrizketatuei ohartxo batzuk ematea, motz erantzuteko, garbi ahoskatzeko... Irratsaioarako, bertan lortutako grabazioa erabiliko dugu.

Halere, lan hau bukatzeko, talde bakoitzari, prestatutako galderak eta pertsonaiaren erantzunak orrialde batean idazteko eskatuko diegu, bai aldizkaritxo bat osatzeko, bai ikastolako informazioko kortxoan jartzeko.

#### **48. Komunikabide ezberdinak. Zein erabili?**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18 eta 19. orrialdeak.*

Bi orrialde hauetan, egoera ezberdinak proposatzen dizkiguten testuak eta komunikabide batzuen marrazkiak agertzen dira. Haurrek, egoera horien berria zabaltzeko, zein komunikabide mota erabiliko luketen erabaki beharko dute.

#### **49. Telegrama, hitzik gabeko komunikaziozko joko kooperatiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Ikasle guztiak eskutik helduta borobilean jarriko dira eta denen erdian, txotx egin ondoren egokitu zaiona jarriko da. Erdikoak esku artetik pasatutako elektrizitatea non dagoen detektatu beharko du, horretarako adi begiratu beharko die ikasleen eskuei, hauek izango baitira mezua pasatzen den bidea edo kable telegrafikoa. Mezua eskuz esku pasatuko da ondoko lagunaren eskua pixka bat estutuz. Ikasleen gorputzaren posizioa arteza izango da eta ezin izango dute zirkinik egin, mugitzen den gauza bakarria eskuak izango direlarik.

Edozein ikaslek hasiko du jolasa “Telegrama bat bidaliko diot ...-i” esanez. Orduan edozein esku erabiliz, ezkerrekoa zein eskuinekoa, erdiko jokalaria ohartu gabe, bere ondoan duen lagun baten eskua estutuko du. Mezua hartu berri duenak beste hainbeste egin beharko du, eta horrela jarraituko dute mezua dagokion jokalaria heldu arte. Mezua heltzen zaionean jokalaria horrek esango du: “Jaso dut mezua”.

Erdian dagoen jokalaria beste jokalarien bat harrapatzen badu mezua pasatzen, orduan lekuz aldatuko dira eta jokoa berriro hasiko da. Erdian dagoen jokalaria ohartu gabe mezua bere helbidera heltzen bada, orduan mezua hartu duen jokalaria erdikoaren lekua hartuz berriro hasiko dugu jokoa. Modu honetan, pertzepzioan oso trebeak ez diren ikasleen frustrazioa ekiditzeaz gain, ikasle guztiek izango dute funtsezko rola errepresentatzeko aukera.

#### **50. Olerkia. Postaria**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 80. or.*

Anjel Lertxundiren olerki hau irakurri ondoren, guk eskutitza idatzi, kartazalean sartu, zigilua jarri eta postontzian sartzen dugunetik hartzaileak bere postontzian hartzen duen arte zein bide jarraitzen duen gogoratu dezakegu.

#### **51. Abestia: Gutunei koblak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 81. or./CDa*

Abestia ikasi aurretik, Sarrionandiaren olerki hau taldean irakurri eta bere esanahiaren inguruko eztabaida bultzatu dezakegu.

- Zer uste duzue adierazi nahi izan duela idazleak?

- ...

## 52. Zer da prentsa idatzia?

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.*

- Eskutitzari “prentsa idatzia” deitzen al diogu? Zer da bada prentsa idatzia?

Galdera hauen erantzunak entzun, eta ondoren, liburuan agertzen den definizioarekin alderatuko ditugu. Segidan, haurrak binaka jarri eta etxetik ekarritako egunkariak aztertzeko aginduko diegu, bertan agertzen diren atal nagusiak zeintzuk diren ikusteko. Liburuan, egunkarietan ikusitako atal nagusiak zeintzuk diren idatzi ondoren, hurrei, atal batzuetako titularra asmatzeko eskatuko diegu.

Bukatzeko, haurrentzat ekoiztutako euskal prentsa irakurtzen duten edo ez galdetu eta irakurriz gero, zein irakurtzen duten adierazteko eskatuko diegu.

## 53. Abestia: Egunkari honekin

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Egunero kioskoetan egunkari asko aurki ditzakegu: *Le journal, El diario Vasco, Gara, Deia, Diario de Noticias...* Baina euskaraz bakarra, *Berria* eta honi atxikirik eskualdeetako *Hitza*.

- Nola du izena euskarazko egunkariak?

- Irakurtzen al dugu?

- ...

*Egunkari honekin jolasten gara.*

*Orain alde batera, gero bestera.*

*Egunkaria aurrera, egunkaria aurrera,  
egunkari honekin jolasten gara...*

*Musika: Folk, Nemesio Etxaniz eta Jose Ignazio Ansorena*

*Hitzak: Xabier Otaegi*

Bakoitzak *Berriaren* edo *Hitzaren* ale bat eskuan duela, kantaren zati honek esaten dituen mugimenduak ginez koreografia txiki bat antola dezakegu.

## 54. Nola egiten da egunkaria?

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.*

Hurrek, marrazkien azpialdean agertzen diren testuak irakurriz, egunkari bat egiteko zer prozesu jarraitzen den ikusiko dute. Segidan, honen inguruan hitz egin dezakegu taldean, prozesuan agertzen diren langileen funtzioak zeintzuk diren argituz. Puntu honetan, interesgarria litzateke hurrekin egunkariaren erredakziora bisitan joatea, hurrek bertatik bertara ikus dezaten egunkaria egiteko prozesua.

### **55. Abestia: Zirt Zart notizia dakart**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: CDa*

Txirri, Mirri eta Txiribitonon albisteen inguruko aspaldiko kanta hau ikasiko dugu.

*Zir zart zir zart*

*Notizia dakart,*

*Zir zart zir zart*

*soinu ta zalapart*

*Zir zart zir zart,*

*Eguzkia berde jarri dela bart.*

Abesti honetan, hainbat gezur azaltzen dira. Haurrak talde txikitan jarri eta abestiaren doinua aprobetxatuaz ea gezur batzuk asmatzen dituzten kantua eraldatuz.

### **56. Testua: albisteak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Beste testu motekin egin dugun bezala, albistearen inguruko hausnarketa txiki bat egingo dugu.

- Zer nolako funtzioa du albisteak? Zertarako balio du?
- Nork idazten ditu albisteak? Norentzat?
- Zein da albiste baten egitura?
- Titularrak zer adierazten du? Zertarako uste duzue idazten dela letra handiagoekin? Eta azpi titularrak?
- Albiste guztiei jartzen al dizkiete argazkiak? Zertarako uste duzue jartzen dietela albiste batzuei argazkia?
- Argazkien azpialdean oina idazten da. Zertarako? Nolako esaldia izaten da argazkiaren oinean idazten dena?
- ...

### **57. Albiste**

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koadernoa, 20. or.*

Orrialdearen azpialdean mikrofonoa agertzen denez, lan-koadernora jo beharko dugu berriro irratsaiorako lanen bat egitera. Oraingoan, hurrek nahi duten gaiaren inguruko albiste bat idatzi beharko dute. Albiste era errazago batean idatzi ahal izateko, alboan agertzen diren egituraren atal ezberdinak osatu beharko dituzte.

## 58. Azalpen testua

*Lan egiteko era: Bakark/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 82. or.*

Irakurgaietan, irratia eta telebistaren inguruko azalpen testuak aurkituko ditugu. Hasiera batean, hurrei, azalpen testu hauek banaka irakurtzeko eskatuko diegu, ezagutzen ez dituzten hitzak apuntatuz gero hiztegian begira ahal izateko. Haur guztiek aipatu dituzten hitz ezezagunen esanahia argitu ondoren, taldean beste irakurketa bat egingo dugu.

## 59. Telebistaren olerkia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.*

Joxan Ormazabalen olerkia taldean irakurri ondoren, elkarrizketa bat bultzatuko dugu:

- *Gustatu al zaizue olerki hau? Zergatik?*
- *Zer adierazten digu?*
- *Zuen gurasoek esan al dizuete inoiz txikiegiak zaretela telebistako programaren bat ikusteko?*
- ...

Elkarrizketa hau aprobetxatuz, telebistaren inguruko galdera batzuk luzatuko dizkiegu, hausnarketa txiki bat bultzatuz.

- *Telebistan nahi duzuen bakarrik ikusten al duzue? Ba al dakizue telebista itzaltzen?*
- *Zer nolako programak dituzue gogoko? Zergatik?*
- *Zer nolakoak ez dituzue gogoko? Zergatik?*
- *Norbaitekin laguntzarekin ikusten duzue ala bakarrik?*
- ...

## 60. Telebista. Inkesta

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.*

Telebistaren inguruko elkarrizketa eduki ondoren, orain hurrek, telebistan ikusten dituzten programen artean gogokoen zeintzuk dituzten aipatu eta, inkesta txiki bat erantzun beharko dute. Lehenik argitu taldean inkesta zer den eta betetzeko erabili behar duten prozedura.

Inkestako galderei bakarka bai ala ez erantzun ondoren, erantzun bakoitzari dagokion puntuazioa batu eta, lortutako puntuazioaren arabera, azpialdean agertzen diren esaldietatik dagokiena irakurri beharko dute.

Bukatzeko, taldeko hurrak emaitzen arabera multzokatu eta honen inguruan beste hausnarketa bat egin dezakegu.

- *Hara! Inkestak gelako gehiengo bat arriskuan zaudetela dio...*
- *Beno, inkestaren emaitzaren arabera, gelako gehiengoak telebista era egokian ikusten omen duzue...*

## 61. Abestia: telebista

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Hona hemen Errobi taldeak aspaldian grabatutako *Telebista* izeneko abestia. Alaia eta martxaduna denez, ikasi ondoren, gelan dantza egiteko aukera eskainiko dizue!

*Gaurko mendeak eskaini digu gauza bat zinez polita,  
polita, eta goxoa, eta ozena bezain galanta.  
Zuri begira pasatzen dugu zenbait eta zenbait bulta...  
Gure etxean sartzen baituzu arras maite dugun besta!*

*Agur beraz zuri,  
agur telebista.  
Tantiruriruri  
tantirurirura...  
Agur telebista,  
profeten profeta...*

*Dena kolore, lilura kantu, ministroak usu mintzo,  
bai eta ere jaun Presidenta su-ondoan kokoriko...  
Horiek denak oso habilki heldu dira egunero,  
gauza hobetik ezin asma euskaldunen frantsesteko.*

*Agur beraz zuri,  
agur telebista.  
Tantiruriruri  
tantirurirura...  
Agur telebista,  
gezurtari adreta.*

*Munduko berri, hara-hunatak, kirola eta besteak,  
haundi-maundien faltsukeriaz dirade bete-beteak.  
Jaun aberatsak baitira egun telebistaren jabeak,  
jabeak eta populuaaren lokarazte trebeak!*

*Agur beraz zuri,  
agur telebista.  
Tantiruriruri  
tantirurirura...  
Agur telebista,  
gu guzien,  
gu guzien,  
izorratzaile galanta...*

Abestia telebistarekiko kritikoa dela aprobeztatuz, hitz egin gaiari buruz.



## 62. Testua: iragarkiak

*Lan egiteko era: Talde handian*

Orrialdearen goikaldean mikrofonoa agertzen zaigunez, dagoeneko haurrek jakingo dute zer suposatzen duen, hau da, lan-koadernoan irratsaiorako testuren bat prestatzea. Kasu honetan, iragarkiaren inguruko gidoia egiteko proposamena agertzen denez, lan-koadernora jo aurretik, iragarkiaren inguruko taldeko lanketa bat bultzatuko dugu.

- *Iragarkiek zer nolako helburua edota funtzioa dutela uste duzue? Zertarako balio dute?*
- *Nork asmatzen ditu iragarkiak? Idazleak? Kazetariak? Publizistak? Dendariak?*
- *Iragarkietan agertzen denak errealitatearekin zerikusirik izaten al du? Bertan agertzen den guztia sinestu egin behar al dugu? Zergatik?*
- *Nolakoak izaten dira iragarkiak? Zertan saiatzen dira publizistak?*
- *Non ikusi ahal dira iragarkiak?*
- *Azken bolada honetan zein iragarkik deitu dizuete arreta?*
- *Gogoratzen dituzuen iragarki horiek zer "saldu" nahi diguten?*
- ...

Segidan, haurrek aipatu dituzten iragarki ezagun horiekin zenbait jarduera egin ditzakegu.

- *Zer mezu erabiltzen dituzten. Testua luzea ala motza erabiltzen duten...*
- *Zer da iragarki horietatik guri gelditzen zaizkigun aspektu garrantzitsuenak: abestia ikasterraza, esaldi bat, imajina bat...*
- *Zer nolako jende motarentzat zuzendua dagoen ikustea: haurrentzat, gazteentzat, denentzat...*
- ...

## 63. Irratsaioaren prestaketa: iragarkia

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koadernoa, 21. or.*

Iragarkiei buruzko hausnarketa egin ondoren, gelako haurrak binaka taldekatuko ditugu eta bien artean iragarki baten gidoitxoia idatzi beharko dute.

Iragarkia irratsaiorako beharko dugunez, bertan agertuko diren pertsonaiek esango dutenaz gain, zer nolako soinu, abesti edota onomatopeiak egin edo grabatu beharko ditugun kontuan hartu beharko dute gidoia idazterakoan.

Bien artean gidoiaren zirriborroa idatzi ondoren, haur bakoitzak bere lan-koadernora garbian pasa beharko du.

Iragarkia idatzi ondoren bikote bakoitzak besteen aurrean irakurri behar du. Ez ahaztu iragartzen duguna saldu behar dela, beraz gure intonazioa eta esateko era oso ondo zaindu behar ditugu.

#### 64. Gurasoei eskutitza

*Lan egiteko era: Talde handian*

Gelako irratsaioa martxan jartzeko hainbat testu ekoizten ibili gara, sintonia posible batzuk aukeratu ditugu... Halere, gure irratsaioari azken ukitua eman baino lehen, etxean irratsaio batzuk entzutea komenigarria dela pentsatzen dugu zenbait ideia hartzeko aukera emango digutelakoan. Irratsaioak entzun ahal izateko, gurasoei eskutitza bidaliko diegu beren laguntza eman dezaten eta beren seme-alabekin irratia era kritikoa entzun dezaten. Hona hemen eredu bezala erabili dezakezuen eskutitza.

*Kaixo gure kolaboratzaile fin eta leialak:*

*Berriz ere zuengana zuzentzen gara beharrezkoa zaigun zuen laguntza eske.*

*Jakingo duzuen bezala, azken bolada honetan komunikabideen inguruko gaia lantzen gabilta eta, gai honetako proiektu bezala zuen seme-alabei irratsaio bat egitea proposatu diegunez, hasiak dira jada musikako programak, albisteak, iragarkiak, ipuinak... prestatzen.*

*Hau dela eta, eta laster irratsaioa grabatzen hasi beharko direnez, irratsaio hori aberastu ahal izateko, beste behin ere zuei laguntza eskatzea otu zaigu. Zer egin behar duzuen oraingo honetan? Oso erraza. Etxean zuen seme-alabekin batera irratiko programa bat entzun besterik ez! Beno, entzun eta bertatik gure programa egiteko ideiak hartu: sintoniaren ondoren nola esaten duten programaren izenburua, noiz sartzen duten musika, zertarako...*

*Ikusten duzuen bezala ez dizuegu oso lan zaila jarri, ezta?*

*Beno, zuen laguntza izango dugulakoan eta denon artean irratsaio mundiala egingo dugulakoan, jaso itzazue gure agurrik beroenak.*

*Maddalen eta Fermin*

*Hola, `querid@s` colaborador@s:*

*Aquí estamos para volver a pedir vuestra maravillosa ayuda.*

*Sabréis que estamos estudiando los medios de comunicación, y que estamos preparando una emisión radiofónica. Pues, hemos pensado que antes de empezar con la grabación, sería interesante que `l@s` `niñ@s` escucharan un programa de radio de verdad y qué mejor que hacerlo junto a vosotros. De paso a medida que lo escucháis, podéis ir comentando ideas para nuestro programa: cómo decir el título o nombre del programa, cómo y cuándo meten la música, qué apartados se pueden trabajar...*

*No os quejaréis del trabajo que os mandamos, ¿verdad? Es muy bonito. Pues esperando vuestra colaboración nos despedimos hasta la siguiente.*

*Maddalen y Fermín.*

## **65. Bideoa: irratsaio baten antolaketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Bideoa*

Bideoa ikusi aurretik, hurrei arreta eskatu, bertan ikusi eta entzungo duguna oso lagungarria izango baitzaigu gure irratsaioa antolatzeko orduan. Ideiak hartu ditzakegu eta haur bakoitzari esango diogu, bideoa ikusi bitartean paper batean egokiak iruditzen zaizkion bi edo hiru ideia apuntatzeko.

Ikusten ari garen bitartean, bertan esaten dena ondo ulertzen dela ziurtatu behar dugu eta haurrak ideiak hartzen eta apuntatzen ari direla ziurtatu.

Ikusi ondoren, hurrei galdetuko diegu ea irratsaio bat horrela antolatzen eta prestatzen zela uste al zuten. Zer iruditu zaien egiten den lana (handia, txikia...). Eta azkenik gauzak aurrez prestatu behar diren inguruko hausnarketa bideratuko dugu. Ia beti, gauzak aurrez prestatzeak onurak dituela ondorioztatuko dugunez, has gaitezke guztiek hartu eta idatzi/apuntatu dituzten ideiak konpartitzen eta gure irratsaioan aplikatuko ditugunak erabakitzen.

## **66. Irratia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.*

Orrialde honetan proposatzen dizuegun behaketaren aurretik, ondo legoke bideoa ikusteaz gain, irakurgaietan irakurri genuen irratiari buruzko azalpen testua berriro irakurtzea. Hau egin ondoren, irrati bateko estudioaren argazkiari behatu eta honen inguruan taldean eztabaida sortu (bertan agertzen den tresneriak zertarako balio duen, agertzen diren pertsonen funtzioa zein den...).

Orrialdearen azpialdean, ezagutzen dituzten irrati kateen izenak izendatzeko eskatuko diegu.

## **67. Irratsaioetako testuak eta ulerkortasuna: puntuazio zeinuak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.*

Laster gure irratsaioetako testuak aukeratu eta, grabazioan ondo irakurri ahal izateko, denon artean zuzendu egin beharko ditugunez, puntuazio zeinuen inguruko lanketa bat proposatzen zaizue orrialde honetan.

Puntua, koma, harridura-marka, puntu jarraiak, bi puntuak eta galdera-marka zeinuak landuko ditugu, eta ezertan hasi aurretik, hurrei mezu hauen inguruko hausnarketa egitea eskatuko diegu.

*- Zertarako uste duzue erabiltzen dela puntua? Testu batean jartzen ditugun puntu guztiak berdinak al dira? Zergatik?*

- *Eta koma, zertarako uste duzue erabiltzen dela?*
- *Norbaitek badaki zertarako jartzen diren puntu jarraiak? Adibide bat jarriko zenukete?*
- *Eta, badakizue zertarako jartzen diren bi puntuak?*
- *Eta harridura-markak eta galdera-markak? Noiz erabiltzen da bat eta noiz bestea?*

Taldean hausnarketa hau egin eta geure laguntzaz zeinu bakoitza noiz eta nola erabiltzen den argitu ondoren, haurrak binaka jarri eta orrialde honetan agertzen den testuan zeinuak kokatu beharko dituzte, beti ere, testuan gorritz agertzen diren hizkien atzetik.

Bukatzeko, guztion artean testua berrikusiko dugu ea ados jartzen garen. Nolanahi ere, jarduera honen helburu nagusia, puntuazio zeinuekiko eta funtzioarekiko kezka sortzea dugu. Poliki-poliki joango gara, ekoizpen guztietan alderdi hori kontutan hartzen eta gauzatxo batzuen inguruko zuzenketak egiten. Lagungarria izan daiteke, gogoratzeko eta erabilera bultzatzeko, gelako ipuinen txokoaren inguruan, edo bertan, tokia izanez gero, kartulina batean puntuazio ikurrak azaltzea, aldamenean bakoitza noiz erabiltzen den laburki idatzita.

## **68. Igarkizunak**

*Lan egiteko era: Binaka/Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Irakurgaiak 2, 83. or.*

Igarkizunetan “ezkutatuta” agertzen diren egunkaria, irratia eta e-posta asmatzeko gai izango direla uste dugu.

## **69. Komikia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 26 eta 27. or.*

Hasteko, hurrei komikia banaka irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta ondoren, irakurketa talde handian egingo dugu. Hasi aurretik haurrak girotu egingo ditugu.

- *Zertarako deitu dio mekanikariak Maddaleni?*
- *Zer egin du Maddalenek makina berriro etxean eduki bezain pronto?*
- *Fermin eta Maddalen elkartzen direnean nora erabaki dute joatea denboraren makinan?*
- *Nora bidaiatu dute kasualitatez? Zer berri entzun dute hara iristean?*
- *Eta handik zer ekarri dute museorako?*
- ...

Ondoren, binetaz bineta guztion artean irakurriko dugu. Bigarren irakurketan, besteetan egiten dugun moduan, xehetasunetara joko dugu. Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu.

## **70. Ipuina: Gora Gutenberg, gora Marconi!**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak, 84, 85, 86 eta 87. or.*

Beti egiten dugun moduan, ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatu eta ipuinari buruzko hipotesiak botatzeko eskatuko diegu haurrei.

- “Gora Gutenberg, gora Marconi!”, izenburu horrekin zeri buruzkoa uste duzue izango dela Txilikuk idatzitako ipuina?

Ipuinaren lehen orrialdea irakurri ondoren, gertatutakoaren inguruko galderaren bat eta aurrerago gertatuko denari buruz hipotesi gehiago botatzeko eskatuko diegu.

- Eurodisneyra joateko aukerarik ez eta nora joateko proposatu zieten gurasoek Aste Santuko oporretan?

- Zer iruditzen zaizue, joango direla Landetako parke horretara, bai ala ez?

Eskema hau orrialde bakoitza hasterakoan erabiliko dugu, galderen bidez haurrei irakurritakoa asimilatzen laguntzeko eta istorioan gertatuko denaren inguruko motibazioa edukitzeko.

Azkenik, ipuina bakarka irakurtzeko denbora utziko diegu haurrei.

## **71. Ipuina aitzakia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.*

Irakurri berri dugun ipuinaren inguruko talde-eztabaida egingo dute, ondoren bakarka galdera batzuen erantzuna pentsatu eta idatziz erantzuteko. Bukaeran elkar jartzea egingo dugu.

## **72. Irudimena, hori gauza ederra!**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

Teknologiaren parkean egon ondoren Maider eta Iker irudimena zeinen garrantzitsua den konturatzen dira. Gure irudimena martxan jartzeko, jolas hau egingo dugu:

Haur bakoitzak orri batean forma abstraktu bat marraztu behar du. Zenbat eta sinpleagoa hobe. Ondoren paper hauek denon artean banatuko ditugu eta haur bakoitzak tokatzen zaion marrazkian zer ikusten duen adierazi beharko du. Ez ahaztu irudimena lantzen ari garela. Jolas hau 2 edo 3 aldiz egin dezakegu ahal diren aukera guztiak azaltzeko.

### **73. Irratsaiorako liburuen inguruko atalaren prestaketa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 4. lan-koaderno, 22. or.*

Mikrofonoak liburuen inguruko programa bat prestatzera gonbidatu gaitu liburuan. Gustuko ipuin bat irakurtzen dugunean, normalean gure lagunei horren berri ematen diogu, beraiek ere irakur dezaten. Bada, irratsaiorako prestatu behar dugun liburuen programa horretarako, zuen lagunei irakurtzeko aholkatuko zenieketen liburuaren inguruko datu bilketa bat egin beharko dugu. Horretarako, lan-koadernoan aurkituko dugun fitxa bete eta irratsaiorako datu hauek nola adierazi prestatu beharko dugu.

### **74. Idazleak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.*

Haurrek txikitatik euskal idazleen olerki, ipuin eta igarkizun asko irakurri dituztenez, agian gogoratuko dituzte idazleen izen batzuk: Joxan Ormazabal, Txiliku, Juan Kruz Igerabide, Mixel Murua, Anjel Lertxundi, Antton Kazabon, Yolanda Arrieta...

Egile hauek eta beste batzuek idatzitako testuen inguruko elkarrizketa bat bultza dezakegu.

### **75. Entzunaldia: Anderson**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Idazteko erak ikusterakoan, idazmakina ikusi dugula aprobetxatuz, Andersonen entzunaldi hau landuko dugu.

Beti egiten dugun moduan, hasteko gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu. Egia esan, Andersoni buruz informazioa lortzea ez da oso erraza, guk behintzat ezer gutxi aurkitu dugu.

**Anderson, Leroy.** Konpositore estatubatuarra (Boston, 1908-1975). Musikari zaletuen semea, oso gazte hasi zen Ingalaterra Berriaren kontserbatorioan organo, tuba eta kontrabaxua ikasten. Bere lehen minuetoa hamabi urterekin konposatu zuen. Harvardeko unibertsitatean musikako ikasketak burutu ondoren, pelikuletako musiken adaptazio sinfonikoak egiten hasi zen. Bere musika, “xumea eta arazorik gabeko musika” bezala definitu zuen. Bere obren artean, ezagunena “*idazmakina*” da.

Konpositoreen txokoa martxan jarri ondoren, hurrei begiak ixteko eskatu, musika jarri eta, musika entzutean burura zer imajina etorri zaien galdetuko diegu. Musika oso deskriptiboa denez, ziurrenik haur askok esango dute idazmakina bat imajinatu dutela. Segidan, musikarekin batera idazmakinan eskutitz bat idatziko dugula esango diegu eta taldean korru bat osatuz, makinaz idazten arituko bagina bezalako keinuak egingo ditugu musikaren erritmoa jarraitzen dugun bitartean.

## **76. Txisteak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 88. or.*

Irratsaioarako txiste batzuk ere aukeratu beharko ditugunez, gaian sartzen joateko komunikabideen inguruko txiste batzuk irakurriko ditugu.

Txisteak irakurri ondoren, gelako haur bakoitzak gehien gustatzen zaion txistea idatzi beharko du orri batean (edozein txiste), gero idatzitako guztien artean batzuk aukeratu ahal izateko.

## **77. Gurutzegrama**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 4. lan-koadernoan, 23. or.*

Laster irratsaioaren azken prestaketetan hasi beharko dugunez, bertan aurkeztuko ditugun testu ezberdinen izenekin osatu beharko dute lan-koadernoan agertzen den gurutzegrama.

## **78. Irratsaioaren prestaketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30 eta 31. or.*

Unitatean zehar irratsaioarako lan ezberdinak egin ditugu: musikako programarako abestiak aukeratu ditugu, ipuina idatzi dugu, albisteak idatzi ditugu, iragarkiak, elkarrizketa ezberdinak egin ditugu, txisteak... Orain, prestatu dugun material hori guztia antolatu, haur bakoitzari ardura bat eman eta irratsaioaren gidoia prestatu ondoren, grabaketa martxan jarriko dugu.

Hau guztia antolatzeko, liburuan agertzen diren pausuak jarraitzea proposatzen dizuegu:

- Hasteko, lan-koadernotan egin ditugun lanak kontuan hartuz, denon artean irratsaioaren gidoia adostu behar dugu. Irakaslearen laguntzarekin, noski!
- Ondoren, irratsaioarako aukeratu dituzuen testuak taldean zuzendu eta garbira pasako ditugu.
- Horren ostean, irratsaioa antolatzeko ardurak banatu eta beharko dugun materiala lortzen hasiko gara: musika, soinu-efektuak...
- Segidan, grabazioa antolatuko dugu.
- Eta bukatzeko, herriko irratan edota ikastolako bozgorailuen bidez emitituko dugu.

Emititzea ezinezko bazaigu, grabazioa edo haren kopiak etxera eraman ditzatela, beste geletakoei eskain diezaietela, hau da, zabaldu, ez dadila kaxoian geratu.

## **79. Saioaren publizitatea**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Irratsaioaren grabaketa egiten dugun bitartean, zer nolako publizitatea egin behar dugun aztertu eta prestatzen hasi beharko gara: iragarki kartelak, eskutitzak, gelaz gela joan zer egin duzuen adieraziz...

## **80. Bertsoa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 89. or.*

Irratsaioa emititu dugu eta gaia bukatzera goaz. Azken aste hauetan komunikabideei buruz jardun gara. Gaur egun, komunikabideei esker, munduko edozein lekutan gertatzen dena berehala jakiteko aukera daukagu. Txinan goizeko 9etan lurrikara izan eta minutu batzuk geroago irratan entzuten ari gara berria. Maila horretan izugarri aurreratu da guztia. Halere, Mikel Mendizabalen bertsoak dioten bezala, askotan, inguruan daukaguna ikusteko gai ez gara.

Bertsoa irakurri eta kantatu ondoren, gai honen inguruan hitz egitea interesgarria izan daiteke.

## **81. Sintesia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.*

Unitate honen sintesi moduan, haurrei, aztertu ditugun komunikabide batzuen izenak gogoratzeko eta beraiek gehien erabiltzen dutena zein den adierazteko eskatuko diegu. Bukatzeko, irratsaioaren inguruko balorazio bat egiteko eskatuko diegu.